

HIZKUNTZA POLITIKA

Lea-Artibai eskualdean eta inguruko zonaldeetan dauka inguru-hurbilaren muga Lea Artibai Ikastetxeak. Euskal Herrian errotutako proiektua da, beraz, Lea Artibai Ikastetxea, euskalduna ezinbestez eta bokazioz. Eskaintzaren eta aktibitateen singularitasunak eta eguneratze teknologikoaren beharrek ostera, beste eremu geografiko batzuetara ere bagaramatzate.

Honen ondorio argia dira, beraz:

- Barne harremanak, dokumentazioa, bilerak, errotulazioa eta lan-tresnak euskaraz eskaintzea, hizkuntza paisaia geure eskualdeari dagokiona bihurtuz, hau da, erabat euskalduna.
- Jarduera akademikoari dagokionez:
 - Euskarari bultzada ematea arlo teknologikoetan eta enpresa munduan.
 - Lan mundua euskalduntzeko ekarpena egin, gure ikasle denek bere jarduera egokien euskaraz burutuko dutela ziurtatuz.
 - Enpresa munduak, batez ere arlo batzuetan, ezinbestekoa duten gaztelerako hizkuntza-konpetentzia ziurtatzea gure ikasleengan.
- Eta, horren ondorioz:
 - Euskara proposatzen da hizkuntza nagusitzat Ikastetxearen araututako eskaintza guztietan.
 - Gazteleraz ere emango lirateke gai batzuk (teknologiaren arabera).

Bide honetan, konpromiso zehatzak hartu dira euskara bultzatzeko arloan jarduten duten kanpoko erakundeekin: Kontseilua, Bai Euskarari zertifikazioa lortuz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Hizkuntza Normalkuntza Proiektuen bidez eta 2018 urtean BIKAIN euskararen kalitate ziurtagirian Goi Mailako akreditazioa lortu zuen Lea Artibai Ikastetxeak.